
Sexu bereko saguetatik kumeak sortu dituzte

Lehenengo aldiz, eta ugalketa sexualaren jokoa arauak hautsita, sexu bereko bi gurasoren kumeak sortzea lortu dute saguetan. Ingeniaritza genetikoak erabili behar izan dute ugalketa sexualak ezartzen dituen mugak saihesteko, baina emaitza hor dago: kume osasuntsuak jaio dira, helduaroan ugaltzeko gai direnak.

Ugaztunon kasuan, derrigorrezkoa da eme baten eta ar baten informazio genetikoak jasotzea. Izan ere, inpronta genetikoak ematen dira. Alegia, enbrioia jasotzen dituen gene batzuetan bietako bat aktibatuta eta bestea inaktibatuta egoten dira. Derrigorrezkoa da bat aitarengandik eta bestea amarengandik jasotzea, bi aleloak inaktibatuta egoteak garapenean-arazo larriak eragiten baititu.



Sexu bereko gurasoen saguak normaltasunez ugaltu dira, eta kumeak izan dituzte. ARG.: Leyun Wang.

Ikerketan, zelula ama enbrionario haploideak erabili dituzte. Kromosometan, markatutako 3 eremu ezabatu dituzte, inprontaren arazoa ekiditeko, eta nukleorik gabeko obulu batean txertatu dute material genetikoak. Ikerketaren helburua ez da halako teknikak gizakiekin erabiltzea, anormaltasun-arriskua handiegia baita, baizik eta ugaztunen ugalketa nolakoa den hobeto ezagutzeko. [Cell Stem Cell aldizkarian](#) argitaratu dute. ●

Dickinsonia animalia zaharrenetakoa dela baieztatu dute

Zientzialariek orain arte ez dute garbi izan zer eratako biziduna zen Dickinsonia. Ediacara periodoko fosil obalatu batzuei deitzen zaie horrela, eta onddotzat edo protistatzat hartu izan dituzte. Orain, ordea, fosilen berariazko biomarkatzaile batzuk aztertuta, animaliak zirela ondorioztatu dute.



Itsaso Zurian (Errusia) aurkitutako Dickinsonia bat. ARG.: Ilya Brobovskiy/Australiako Unibertsitatea.

Adibidez, ikertzaileek nabarmendu dute Dickinsonia fosiletan askoz ere molekula kolesteroide gehiago topatu dituztela (% 93 baino gehiago), inguruko jalkin mikrobianoetan baino (% 11). Horrez gain, ez dute ergosteroiderik topatu; molekula horiek ondoren ezaugarritzat hartzen dira.

Ediacarakoak erregistro fosilean aurkitu diren bizidun zaharrenak dira: duela 575-541 milioi urte bizi izan ziren. [Science aldizkarian argitaratu dute Dickinsonia fosilei buruzko ikerketa](#). ●